

TXOSTENA

Espediente zk.: 2019IK200018 Emakumeen etxeko kudeaketa zerbitzua

Gaia: Aurkeztutako proiektuen balorazio osoa eta esleitzeko proposamena

Zarauzko udaleko Parekidetasun departamentuak Emakumeen* Etxearen proiektua egiteko, dinamizatzeko, programak eta zerbitzuak prestatzeko eta kudeatzeko zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa irekia deitu du.

Lehiaketara lau enpresak aurkeztu dituzte beraien proiektuak:

- Arazi IKT SL
- Kabia Elkartea
- Daiteke-Carreers & Jobs, SL.
- Ortzadar

Administrazio klausuletako 11. artikuluan (esleitzeko prozedura) jasotakoaren arabera, hau da aurkeztutako proiektuen balorazio osoa:

11.1. Formula bidez ebaluatu daitekeen irizpidea

1) Eskaintza ekonomikoa: gehienez 55 puntu

$$Vo = (Vim/Vio) \times 55$$

Esanahia: Vo= eskaintzaren balorazioa

Vim= eskaintzaren zenbateko txikiena (Vio-ren txikiena)

Vio=eskaintzaren zenbatekoa

Enpresa	Eskaintza ekonomikoa			Puntuak
	Oinarria	BEZ %21	Guztira	
Arazi IKT SL	38.000,00	7.980,00	45.980,00	46,65
Kabia Elkartea	32.231,40	6.768,60	39.000,00	55
Daiteke Carreers & Jobs SL	37.500,00	7.875,00	45.375,00	47,27
Ortzadar	39.000,00	8.190,00	47.190,00	45,45

2) Profesionalen formazioa. Gehienez 10 puntu

Lizitazioan parte hartzeko kaudimen-baldintza modura kontuan hartu ez diren alderdiak bakarrik baloratuko dira:

a) Hezkuntzarekin, soziologia, psikologia, dinamizazio, berdintasuna edota migrazioarekin zerikusia duten arlotan goi mailako ikasketak. Gehienez 8 puntu

-Doktoretzak: 2puntu

-Masterrak:2 puntu, bakoitzagatik, eta gehienez 4 puntu

-Graduondoko diplomak: puntu 1 bakoitzagatik, eta gehienez 2 puntu

b) Aplikazio informatikoen erabilerarekin loturiko gaietan formakuntza (blogak, web orriak eta/ edo sare sozialak. Gehienez 2 puntu

Bakarrik 50 orduetik gorako formakuntzak onartuko dira

-50-75 ordu: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko

-76 ordu eta hortik gora ordu: 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko

Enpresa	Profesionalen formazioa				Puntuak
	Doktoretza	Masterra	Graduondokoa	Informatika	
Arazi IKT SL	0	0	0	0	0
Kabia Elkartea	0	2	0	0	2
Daiteke Carreers & Jobs SL	*	*	*	*	1,23
Ortzadar	0	2	0	0	2

*Daiteke: zerbitzua aurrera eramateko bi pertsona proposatzen ditu:

Batek zerbitzuaren %35a egingo luke eta besteak %65a

Daiteke	Profesionalen formazioa				Puntuak
	Doktoretza	Masterra	Graduondokoa	Informatika	
Zerbitzuaren %65a bideratuko duen profesionala	0	0	0	0	0
Zerbitzuaren %35a bideratuko duen profesionala	0	2	1	0,5	3,5
Bien balorazioa	0-ren %65 = 0 - 3,5-ren %35 = 1,23				1,23

3) Profesionalen lan-esperientzia. Gehienez 10 puntu

Zerbitzua emango duen talde esleipenduneko profesionalen sei hilabete baino gehiagoko eskarmentua, lizitazioaren zerikusia duten antzeko programa edota zerbitzuetan: 0,2 puntu hilabeteko

Enpresa	Lan-esperientzia	Puntuak
Arazi IKT SL	Ez dauka	0
Kabia Elkartea	7 hilabete x 0,2 = 1,4	1,4
Daiteke Carreers & Jobs SL	*	8,96
Ortzadar	38 hilabete x 0,2 = 7,6	7,6

*Daiteke: zerbitzua aurrera eramateko bi pertsona proposatzen ditu:
Batek zerbitzuaren %35a egingo luke eta besteak %65a

Enpresa	Lan-esperientzia	Puntuak
Zerbitzuaren %65a bideratuko duen profesionala	42 hilabete x 0,2 = 8,4	8,4
Zerbitzuaren %35a bideratuko duen profesionala	2008 urtetik egun arte	10
Bien balorazioa	8,4-ren %65 = 5,46 - 10-ren %35= 3,5	8,96

11.2. Formula bidez ebaluatu ezin den irizpidea:
Proiektuaren diseinua. Gehienez 25puntu.
(Proiektu bakoitzaren balorazioa erantsitako txostenean)

Enpresa	Balorazio irizpideak					Puntuak guztira
	1	2	3	4	5	
Arazi IKT SL	3	3	5	3	3	17
Kabia Elkartea	4	3	4	4	5	20
Daiteke Carreers & Jobs SL	5	5	4	4	4	22
Ortzadar	5	5	5	5	5	25

Administrazio klausuletako 11. artikuluan (esleitzeko prozedura) jasotako atal guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proiektuak puntuazio hauek lortu dituzte:

Enpresa	BALORAZIOA GUZTIRA				Puntuazioa guztira
	Eskaintza ekonomikoa	Profesionalaren formazioa	Lan-esperientzia	Proiektua	
Arazi IKT SL	46,65	0	0	17	63,65
Kabia Elkartea	55	2	1,4	20	78,40
Daiteke Carreers & Jobs SL	47,27	1,23	8,96	22	79,46
Ortzadar	45,45	2	7,6	25	80,05

Zarauz, 2019ko urriaren 16an
Eduñe Urbieto Zúñiga



